

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Taldea: Iker, Beñat, Oier, Manex eta Ainhitze

Idea: Aparkalekurako aplikazioa eta produktua

Zerbitzuaren bezeroa aparkalekua aurkitzeko arazoak dituen gidari oro izango da. Ideia da, pixkanaka zabaltzen joatea. Sentsoreak ezin dira egun batetik bestera herri guztietan eta kokaleku guztietan instalatu, baina pixkanaka egingo genukeen prozesu bat izango litzateke. Bezeroen ezaugarriak nahiko antzekoak dira: egunero lanera doazenak eta denbora aparkatzeko lekua bilatzen gastatzen dutenak, bileretara berandu joaten direnak, umeekin ikastetxera denboraz justu joaten direnak, eta gazteak gehienbat, aplikazioa erabiltzeko gaitasuna eta ezagutza nahikoak izango baitituzte.

Gure eguneroko arazoa bilakatu da gaur egun edozein lekutara joateko garraioaren menpe gaude eta. Arazoetan sartzen da, gure garraioa erabiltzean aparkalekurik gure begi bistan ez dagoenean horrek denbora berreskurazina eramaten gaitu. XXI. mende honetan denbora gauza garrantzizkoena bilakarazi da, gure aplikazioan arazoari soluzio azkar eta efektibo bat aurkezten dugu.